




2. Balio proposamena

Ikasturte hasiera guztietan ikasleek koadernoak erosi behar ditugu. Horren ondorioz, **izugarritzko kontsumoa** egiten dugu, eta **planetaren egoera kaltetu**. Guk, ikasle bezala, arazo **horri aurre egin nahi diogu**. Nola? Hainbeste kontsumitzea ezinbestekoa bada, **kontsumitutakoa jasangarria** izan dadin eta produktuok ikasle guztiontzat **eskuragarriak** izan daitezen bermatuz.

Horretarako, ReStudy enpresa sortu dugu. **Konziante gara klima aldaketaz** eta beraz, **naturarekiko errespetagarriak** diren, produktuak guztiontzat eskuragarriak diren (hau da, **prezio ulergarri** bat dutenak) eta **kalitate oneko** eskola edota **bulego materiala** eskaintzen ditugu.



ReStudy enpresaren **produktu nagusia birziklaturiko paperez** egindako **koadernoak** dira. Koadernak egiteko, ikastetxeetan edukiontzia jarri ditugu, ikasleek apunteak bertan bota ditzaten; eta paper hori birziklatuz sortzen ditugu hurrengo ikasturterako koadernoak, natura zainduz, gainera!



Hala ere, aipatu beharra dago koadernoek aparte, paperez egindako **produktu gehiago eskaintzen ditugula**, adibidez, agendak eta folioak; baita **Ecoembesek** emandako plastikozko botilez egindako bolalumak eta plastikozko zuntzez egindako estutxeak ere.

Horrez gain, gure lehengai guztiak birziklatuak direnez, gure enpresak **ez du lehengairik inportatzen** eta funtsezko **elkarteak inguruko enpresekin** egiten ditugu, **karbono urratsa** ahalik eta gehien **txikiagotuz**.





Inguruko beste enpresa askorekin alderatuz, **berritzaileak gara**. Izan ere, ikasleek aurreko urteetan erabilitako koaderno baliatzen gara, inoiz gauzatu ez den ideia, **ikasleek birziklapenean eta ekonomia zirkularrean inplikazio zuzena** baitute. Horrela, gazteok ere ikus dezakegu birziklapena, betebeharrak moral bat izateaz gain, sari zuzen bat eskuratzeko modu bat izan daitekeela. Aipatutakoaz gain, ikasleek haien sari zuzen bat jasoko dute **%10eko deskontua** eskuratuz.

Gainera, haien **aportazio txikiak aldaketa handia** eragin dezaketela bisualki ikas dezaten, **haritzen baso** bat landatuko dugu, **Urkiola parke naturaletik** gertu, gure mendien **deforestazioa** eta **espezie arrotzen** nagusitasunari **aurre egiteko**. Institutu bakoitzak birziklatutako **50 kilo papereko haritz**



bat landatuko dugu eta institutu horren izena jasoko du arbolak. Ikasleek **basora irteerak** eginez haien lana ikus dezakete islatuta.

Bestalde, **balore kuantitatibo**ei dagokionez, **ikasleentzako beharrez gain**, oso **prezio konpetitiboak** ditugu, edozeinek eskola materiala bezalako funtsezko produktuak erosteko edo eskuratzeko aukera izan behar duela deritzogulako.

Normalean, ekologikoa den produktu bati buruz pentsatzean, guztioi datorkigu burura diseinu eskas bat, eta horrek ez du zertan horrela izan behar. Izatez, gure **diseinu dinamiko, moderno eta minimalista** balore gehigarri bat da, ahalik eta bezero gehiagorengana hurbiltzea lagunduko gaituena.

Gainera, gure produktuak mota guztietako bezeroen beharretara egokitzen ditugu, **pertsona ezkerterei bideratutako koadernoak** ekoiztuz, esaterako.